

Ingurumen eta segurtasuneko arau orokorrak azpikontratentzat

[XXX](e)n sartu aurretik:

Lanak irauten duen bitartean, lana hasterakoan ematen den txartelarekin identifikatu beharko zara, kontrakoa esaten ez bada, behintzat.

Orokorrak:

Eduki garbi laneko area: hondakinak horretarako prestatutako gunetan utzi eta sailkatu.

Erabili erabakitako **NBEak** lan area bakoitzerako. Nahitaezkoa da [Xxx](e)n segurtasun botak edo oinetakoak erabiltzea.

Identifikatu laneko gunea arriskurik baldin badago eta arrisku hori kendu ezin bada.

Likido egoeran dauden produktuak ezin dira edozein hustubidetatik bota. Horrelakorik egin behar izanez gero, galde iezaiozu areako arduradunari.

Saiatu enpresako langileen lan-erritmoa ez oztopatzen; arduradunari galdetu mantenu baliabideen inguruan (orgak, transpaleta, hondeamakina, etab.).

Utzi hondakinak horretarako prestatutako tokietan. Hondakin baterako lekurik ez badago, galdetu sekzioko arduradunari.

NEURTU ARRISKUAK ETA HORREN ARABERA

Gogoan izan...

Aldamioak muntatzerakoan erabili segurtasun-uhala 2 metroz gorako altueretan eta barandak jarri.

Ipini hesiak, barandak, tapak, etab. maila desberdinetan erortzeko arriskua dagoenean, eta horiek seinaleztatu.

Erabili segurtasun uhalak erortzeko arriskua egon daitekeen altuerako lanetarako.

Soilik pertsona baimenduek lan egin dezakete estalki eta teilatuetan. Eskatu baimena Zerbitzu Orokorretako arduradunari estalkian eta/edo teilatuan lan egin behar duenean.

Elektrolisi-gunean soldatu behar baduzu, aldeztu aurretik jakinarazi unitateko arduradunari (EMD).

Soilik pertsona baimenduek lan egin dezakete elektrolisi upelen gainean. Upelen gainean lan egin behar baduzu, eskatu baimena unitateko arduradunari (EMD).

Ziurtatu soldatze-lanetan ez dagoela inguruan material erregai edo sukairik.

Galdetu dagokion unitateko arduradunari neurri prebentiboen beharrari buruz, substantzia korrosiboetatik hurbil lan egiterakoan (potasa, azido sulfurikoa, elektrolitoa, etab.)

Oso garrantzitsua...

Eten energia elektrikoa edo elektrizitatea ekipoetan eta makinetan esku hartu aurretik; egiaztatu energia elektrikorik eta tentsiorik ez dagoela.

**[XXX] 220/380 VOLTEKO TENTSIOAREKIN DABIL (TRIFASIKOA)
Galdetu sekzioko arduradunari gune bakoitzeko tentsioari buruz.**

Joan aurretik...

Lana bukatutakoan, jakinarazi areako arduradunari.